


IKASLEEN ATZERAPENEN ETA HUTSEGITEEN ONDORIOAK

AFE: 3.3. Puntualtasuna eskoletara bertaratzean

1. Eskolaren hasiera adierazten duen txirrinak jotzen duenerako, **ikasle** eta **irakasle** guztiek gela barruan egon beharko dute.

2. Ikasle bat eskola hasi ondoren sartzen bada gelan, atzerapena metatu egingo da, eta irakasgaiaren irakasleak EINIKA jasoko du. Eskoletara bertaratzean gertatzen diren atzerapen guztiak **portaera desegokitzat** hartzen dira.

Ebaluazio eta irakasgai berean:

Hiru justifikatu gabeko atzerapen	1. kargu-hartze idatzia		
2. kargu-hartze idatzia (6 ATZERAPEN)	Zeregin akademikoak bete behar ditu.	Egiten ez baditu,	Irakasgaiaren ebaluazioa gainditu gabe geratuko da, errekuperatzeko.
3. kargu-hartze idatzia (9 ATZERAPEN)			

AFE: 3.2. Eskoletara bertaratu beharra

Irakasle bakoitzak bere ikasleen **bertaratze-kontrol zorrotza** egin beharko du, eta **EINIKA**n idatziko du

Ebaluazio berean eta edozein irakasgaitan:

Hiru hutsegite justifikatu gabe	Idazki bidezko lehen kargu-hartzea PORTAERA DESEGOKIA izateagatik
Idazki bidezko 3 kargu-hartze (9 hutsegite)	Idazki bidezko kargu-hartzea BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERA izateagatik
Bizikidetzaren aurkako 2 portaera (18 hutsegite)	NEURRI ZUZENTZAILEEN OHARRA
BIZIKIDETZAREN AURKAKO 3. PORTAERA (27 hutsegite)	Irakasgai guztien ebaluazioa gainditu gabe geratuko da, errekuperatzeko.

Hutsegiteen FROGAGIRIAK. Tutoreari emango zaizkio ikaslea ikastetxera itzultzen denean.

Frogagirian honako hau idatzi beharko da:

- Ikastetxera etorri ez zen eguna edo egunak.
- Datu pertsonalak: izena eta maila.
- Huts egin dituen orduak.
- Hutsegitearen kausa.
- Frogagiria aurkeztu den eguna eta ahaidearen edo arduradunaren sinadura.